

# agenda

## musika

### ■ Barakaldo

• Arriaga Abesbatza. Gurutzetako kultur etxean, 19:00etan.

### ■ Bilbo

• Yage eta La Secta. Kafe Antzokian, 21:00etan. 1.000 pezetan.

### ■ Donostia

• Donostiko Musika Kontserbatorioaren musikarien kontzertua Victoria Eugenia antzokian, 20:00etan.

### ■ Iruñea

• Oskorri & Pub Ibiltaria. Labrit pilotalekuan, 20:00etan.

## antzerkia

### ● Beasain

• Eskola antzerkia. Beasaingo Ikastolako Balio Anitzeko gelan, 19:30etan.

### ■ Eibar

• La Salle-Isasi taldeak 'Iurretako madarikazioa' antzezlan eskainiko Biltokian, 15:30etan.

## zinema-bideoa

### ■ Barakaldo

• 'Tesis' filmea Barakaldo antzokian, 20:00etan eta 22:30etan.

### ■ Gasteiz

• 'Todo por la pasta' filmea Araba kultur aretoan 19:30etan, Zinemak Ehun Urte egitarauaren barruan.

### ■ Getxo

• 'Erase una vez... el bosque' eta 'Carranza: un valle encantado' diapositiba sortak eskainiko ditu Cristobal Burgos-ek Erromoko Nagusien Etxean, 19:00etan.

## M u s i k a

**Fitxa** Abeslaria: Mikel Laboa. Leku: Hernaniko kiroldegiko frontoia. Eguna: Maiatzak 31. Jende kopurua: Beteta.



ANDER GILLENEA

Argazkilaritari ere luzitzeko aukera eman zion Mikel Laboak.

### Mikelek du errua

EZ nago ziur nire teoriak, baina azken orduetan buelta asko eman dizkiot buruari, eta serioski pentsatu dut ez ote duen Mikel Laboak Gipuzkoako eskualde batek jasan duen uholdearen errua. Alegia, Hernanin joan den larunbat gauean eman zuen kontzertuan izandako bero kondentsazioa, atmosferikoa zein humanoa, eskualde osora hedatu ote zen, eta horrek, azken eguneko sargoriarekin bat eginez, pairatu dugun euri zaparrada zakar basatia ekarri ote zuen.

Txantxa alde batera utzita, Mikel Laboaren emanaldi bakoitza fenomeno sozial bilakatu da azken urteotan. Sarrerak agor-

tzea ohiko da. Berdin da eguraldia etxean geratzeko hobe izatea, joan den larunbat gauean bezala. Denek, gazteek zein helduek, ikusi nahi dute zuzenean euskal kantagintzaren izenik karismatikoena eta xarmangarriena. Jende edadetuarekin batera, *okupak* ikus zitezkeen donostiarraren betiko kantuekin gozaten, edota esperimentazioa lantzen duten euskal rock musikari gazteak haren ateraldi eroekin flipatzen.

Guk, ordea, kontzertuetara zertxobait berandu edo asko jota puntual joatera ohituta, albo batetik eta zutik ikustearekin konformatu behar izan genuen, iritsi gine-

nerako eserleku guztiak, taula inguruko hutsuneak eta barandako lehen lerroak beteta baitzeuden.

Argitaratu berri duen *Zuzenean* diskoaren aurkezpena zen Hernaniko emanaldia. Langile Ikastolak antolatzen zuen 25. urteurrena ospatzeko. Sekulako txalo zaparradaren artean agertu zen Laboa taula gainean, eta *a capella* kantatuz agurtu zituen ikusleak, segidan *Goizuetan* eta *Lizardi* interpretatzeko. Eklektizismoa izan zen nagusi emanaldiak iraun zuen ordubete eta hiru ordu laurdenetan. Flamenkoa, jazz, kantu herrikoiak, katalanez, gaztelaniaz eta euskaraz abesturiko kantuak, txalaparta erakustaldi aparta... eta *Lekaitikoak* izeneko tarte esperimental ospetsuak izan genituen entzungai. James Brownen antzera, emanaldiaren zati handi bat musikariaren esku uzten du Laboak. Horrela, Iñaki Salvadorrek luzitzeko aukera du Laboaren zenbait abestiren egokitzapen instrumentalekin (beharbada luzeegiak), eta beste horrenbeste esan daiteke gainerako musikariet buruz —guztira hamabi, Laboa barne—. Kontzertuaren erdian, Down sindromeak jotako haur baten irudiak azaltzen zituen bideoa ikusi genuen, zuzeneko gitarra espainolaz eta grabaturiko soprano batten ahotsaz lagunduta. Bigarren zatian *Gaberako aterbea*, *Baga-biha-higa*, *Lili bat* eta *Antzinako bihotz* eskaini zituen, besteak beste, emanaldia *Mugak* kantu ikaragarriarekin itxi zuen arte, erakusteko hain zuzen ere bere musikak ez duela mugarik. Bisean *Gure bazterrak* eta *Lilurarik ez* kantatu zituen. Erritmo sosegatua eraman zuen kontzertuak, sosegatuegia agian —edo beroa zen?—, baina garrantzitsuenak, Laboaren sasoiak, baikor izateko esperantza eman zigun. Patxadaz aritu zen Laboa, eroso, gustura, oraindik ere luzerako duela erakutsiz.

Jon Eskisabel